

WWW.HERRIMUSIKA.ORG: BERRIA BERRITUA

Apiriletik Herri Musikaren Txokoak itxura eta aukera berriak ditu ziberespazioan. Aldaketa nagusien artean bisita birtuala eta etxetik bildumak kontsultatzeko aukerak topa daitezke.



castellano | english | français

HERRI MUSIKAREN TXOKOA

Museoa ● Ekitaldiak ● Bisita birtuala ● Bildumak kontsultatu ● Argitalpenak ● Kontakua

Buletinak

2008-03-01
HMberriak 25. zenbakia: Herri Musikaren bilduman 4. zenbakia, Hernaniko Txistu jaialdia eta Udaberriko kontzertua

[Buletin gehiago >>](#)

H. M. Kontzertuak

2008-07-12
HM Udako kontzertua: Gasteizko Udako Folklore Akademikoko Ikasle Taldea eta Aragoiko Pacaréz

[Kontzertu gehiago >>](#)

H. M. Jardunaldiak

2007-11-17
HERRI MUSIKAREN VI. JARDUNALDIAK: ALBOKARIEN HERNANIKO XIV. TOPAKETA

[Jardunaldi gehiago >>](#)

Beste ekitaldiak

2008-05-21
22. Txalaparta Festa Hernanin

[Ekitaldi gehiago >>](#)

Herri Musikaren Txokoak herri musikaren inguruko topaleku eta dokumentazio zentroa da.

Bere jarduerak, arlo ezberdinetan, herri musika eta soinu-tresnak: ezagutzera, ikertzea, zabaltzea eta sustatzera zuzendutak daude.

Haritzugo udal

J. H. Beitia Argitza Bilaketa

Web orriaren sarrera. HMT

2002an HM Txokoak atek zabaldu zituenetik, gure web orria izan da mundura irekia dugun leiho edo ate nagusia. Munduko bazter guzietako herri musika zaleek bertan sartu eta egiten dugun guztia ikusteko aukera dute.

Orain dela gutxi arte hasierako web orri harekin aritu gara. Honek bere muga eta baldintzekin guretzat oso garrantziz-koa den informazioa zabaltze-aren zerbitzua bete du. Bertan HM Txokoaren sorrerari, helburuei eta antolaketari buruzko informazioarekin batera bere ondarea eta eskaintzen dituen zerbitzuak zeintzuk diren azaltzen zen. HM kontzertu, HM jardunaldi eta herri musikarekin lotura zuten hainbat gertakizunen berri emateaz arduratzen zen. Gainera, argitaratutako HMberriak buletinaren zenbaki guztiak ere eskuragarri zeuden PDF formatuan. 2008ko udaberriari munduari begira dugun leiho horretan urrats handia eman dugu. Herri Musikaren web berria jarri dugu eta itxuraz aparte zerbitzuan ere aldaketa handia izan du. Antolaketa askoz egokiago, garbiago, errazago eta praktikoagoa du.

Laster antzeman da web berriak gurekiko harremanetan izan duen eragina. Hau martxan jarri

denetik, ehunka mezu jasotzen ditugu Euskal Herriko eta munduko edozein tokitik gure buletinak eskatzen, galderak egiten, zorientzen, etab. Web orri berrian topatuko ditugun atalak eta horietako bakoitzean topatuko ditugun azpiataletan makina bat informazio topa daiteke.

Museoa: Dokumentazio zentroari buruzko informazio orokorra topatuko du hemen erabiltzaileak.

Ekitaldiak: Herri musikaren arloan HM Txokoan edo inguruan dagoen eskaintzaren berri ematen du.

Bisita birtuala: Aretoz areto eta bitrinaz bitrina erakusketa osoa ikus daiteke. Horrez gain biblioteka, fonoteka eta irudi artxiboa ikus daitezke.

Bildumak kontsultatu: Hau da berrikuntzetan izarra. Zerbitzu honen laguntzarekin munduko edozein tokitik, gure web orrian sartu eta gure bilduma nagusietako datu-baseak kontsulta daitezke. Ikertzaileek gure bildumak arakatzeko ez dute bertara etorri beharrik. Etxetik egin dezakete lan hori eta beraien lanerako interesgarria aurkituz gero behar duten hori non dagoen jakinda etorriko dira.

Argitalpenak: Guk zer argitaratu dugun ikus daiteke: buletinak, liburuak, diskak,...

Kontaktua: Edozein kontsulta edo galdera egiteko gurekin zuzen zuzenean harremanetan jartzeko aukera ematen du.



castellano | english | français

HERRI MUSIKAREN TXOKOA

Museoa ● Ekitaldiak ● Bisita birtuala ● Bildumak kontsultatu ● Argitalpenak ● Kontakua

Bazterra >> Bildumak kontsultatu

Bildumak kontsultatu

BILATZAILEA

Bildumak: Biblioteka: Fonoteka:
Soinu-tresnak: Irudi artxiboa:

Izena / Izenburua:

Egilea / emaila:

Jatorrizko kontinentea: : edozein jatorri:

Jatorria: : edozein jatorri:

Soinu-tresnak:

Soinu-tresna mota: : edozein mota:

Gaiak: : edozein gai:

Edukia:

Bildumaren kontsulta. HMT

KONTZERTUAK HM Txokoan

Udako kontzertua

2008ko uztailaren 12an - arratsaldeko 6,30tan - HM Txokoan

GASTEIZ'KO UDAL FOLKLORE AKADEMIAKO IKASLE TALDEA

2006-07 ikasturtean Gasteizko Udal Folklore Akademian haien musika tresnen erabiltzeko trebezian maila altu bat zuten ikasle talde bat eratzea otu zitzaigun musika tresna ezberdinen arteko elkarlana bultzatuz. Esperientzia horretatik, musika lan interesgarri asko egiteaz gain, inportanteago deritzogun beste gauza bat lortu dugu, lagun talde bat osatzea. Ikusten duzuen bezala, musika talde hau ez da emanaldia ematen ibiltzen den talde profesional bat, ezta hurrik ere, baina deitzen gaituzten lekuetara gure lana erakustera joatea gustuko dugu eta emanaldiaren entzuleen gustuko ere izatea espero dugu.

Saio honetan gure hirian eta herrialdean ditugun

festa ezberdinetako melodiak eskainiko ditugu formazio ezberdinetan: txistu bandan, gaitero bandan, trikitixa taldean. Eta bukatzeko, taldean, bi urte hauetan landutako erreperorioaren muestra txiki bat joko dugu.

Taldekideak:

soinu txikia	<i>Miren Del Rio Irene Arroita</i>
txistua	<i>Iñaki Palacios Mirari Jauregi</i>
gaita	<i>Karmele Berriozabal Ekaitz Santacilia</i>
perkusioa	<i>Dani Compañon</i>



PASATRÉS

Diego Escolano (gaita, gaita de boto, chiflo-salterio y flautas),

Jonás Jimeno (percusiones tradicionales y jaz),

Víctor Monzón (gaita, gaita de boto y clarinete), Nuska Corriá (acordeón y flauta de pico)

PASATRÉS 2005eko udan Aragoiko herri musikan lehendik ibilbide sendoa zuten hiru musikari elkar-tu zirenean sortu zen bere izena oraindik Aragoiko herri askotan dantzatzeko den antzinako hiruko dantzatik hartu zuen. Aragoiko Biella Nuei, Tintirinullo, La Birolla, Dulzaineros del Bajo Aragón, Zicután, Márgen Izquierda, etab. bezalako folk taldeetan parte hartu edo lagundu ondoren, Diego Escolano, Jonás Gimeno eta Manuel Riglos bere ikuskizunekin herri musikaren ikusmolde berri bat azaltzen duen eskaintza berri batean elkartu dira. Herrietako gaiteroen erreper-torioa musika egiteko oinarritzat hartu eta antzi-nako zaporeko melodiak birsortuz lantzen dute. Aldi berean harmonia, orkestrazio eta soinu-tres-

nen teknika berriak baliatzen dituzte gure garaiko emaitzen bila, garai bateko musika modoak gaur egungo era eta giroan inguratzen dizkigutelarik. Iraganeko melodia eta soinu-tresnak, oraingo musikarien eskuetan, milurteko berriko auditorio bati hitz egiteko eta hura hunkitzeko gai dira.

Talde bezala KD formatuan argitaratu berria dute beraien lehenengo lana. *Tonadas de Gaita* deitu duten lan hau Pasatrés osatzen duten musikarien ikuspuntutik begiratutako gaita (dultzaina) eta danborraren erreper-torioan ibilaldi bat da. Gaur egun musika-lan honen eszenaratzearekin batera beraienez bigarrena izango den hurrengo diskoa prestatzen ari dira. Oraingo honetan gaita de botoaren mundua landuko dute.

Elkarrekin daramatzaten hiru urte hauetan Aragoi bertako eta kanpoko herri eta hirietan eman dituzte beraien kontzertu eta ekitaldiak herri musikan espezializatutako erakustaldi eta elkarretaratzetara deituak izan direlarik. Aldi berean Zaragozako festetan antolatzen den *Pilar Folk* jaialdiko egitarauan parte hartu dute 2006 eta 2007 urteetan.

Herri Musikaren Txokoan eskainiko duten programaren oinarrian *Tonadas de Gaita* diskoko abestiak izango dira instrumentazio ezberdineko beste abesti batzuekin osatuko dutelarik.

Udako kontzertua HM Txokoan

AFARIA KONTZERTU ONDOREN

Orain arte bezala, afaria antolatu dugu Auzokalte elkartearen (Herri Musikaren Txokoaren ondoan) musikariekin egon, jan, kantatu, jo eta dantzatzeko. Izen emateko komeni da lehen bait lehen deitzea, lekua mugatua baita. Prezioa: 15 euro.

Aurrikusitako egitaraua

- | | |
|--|-----------------------------|
| 1. Tonadas de ministriles | 9. La danza |
| 2. Tarazona el gaitero | 10. Sanantonada |
| 3. Dos mazurkas | 11. Polkas del moncayo |
| 4. Boleros biellos | 12. Bajo Aragon (jota) |
| 5. Monegrillo | 13. Danze decetina |
| 6. Vals corrido/polka piké | 14. Habaneras a 7/8 |
| 7. Vals francés | 15. Villanos de Paracuellos |
| 8. Diferencias sobre una mudanza de Tauste | |



kontzertu honen laguntzaileak:





Txalaparta saioetako bat. HMT

HERRI MUSIKA ESKOLAREN EGUNA

Pasa den ekainaren 8an ospatu zen Oiartzunen. Ikasturtearen bukaera iritsi zela aditzera emateko eguerdian kontzertu ederra eskaini zuten eskolako ikasleek. Bertara azaldu zen jendetzari urtean zehar ikasitakoa erakutsi zioten. Hala, jendaurreko ekitaldia txalapartarien saio ezberdinekin hasi zen. Ondoren, albokariak eta perkusioa etorri ziren. Hauek bukatutakoan dultzaina eta danborrarekin fandango eta arin-arinak jo zituzten. Ez zen hor bukatu kontzertua. Sukaldariek bazkaria prestatzen zuten bitartean ikasleek jo ta fuego jarraitu zuten soinu-tresnak era ezberdinetan konbinatuz: perkusioa eta kantua, alboka trikitixa eta perkusioarekin, etabar. Eguraldi bikaina lagun musika alaia barra-barra entzun zen Oiartzungo plazan. Kontzertuaren ondoren, ospakizunekin aurrera segiz ikasturte bukaerako bazkaria egin zuten ikasle eta irakasleek. Musikariz betetako mahai baten inguruan pentsa daitekeen bezala, bazkalondoa dezente luzatu zen era guztietako kantu eta musikekin.

ZEGAMAKO GORROTXATEGITARREN ALBOKAK HERRI MUSIKAREN TXOKOAN

Zegamako Gorrotxategitarren Altzibar baserriko bi alboka historiko horien kopiak genituen gure soinu-tresnen bilduman baina 2007ko urriaren 21etik alboka horiek hemen daude. Egun horretan etorri ziren Patxi Gorrotxategi zenaren alarguna, Joanita, haien seme-alabak eta bilobak bisitan Herri Musikaren Txokora.

Patxirekin informazio bila egin-dako bisita guztietan etxean beti bere bihotz zabalarekin hartu gintuen Joanitaren eskutik jaso zituen alboka hauek Juan Mari Beltranek. Gure bildumarako ekarpen handia suposatzen dute bi altxor hauek. Eskerrik asko.



Juan Mari Beltran eta Joanita Jauregi alboken aurrean. HMT

BISITARI KOPURUA

Martxoa: bisitari kopurua: 239

Antolatutako taldeak: 11

Apirila: bisitari kopurua: 611

Antolatutako taldeak: 25

Maiatza: bisitari kopurua: 431

Antolatutako taldeak: 18

Bisitari kopurua ekainera arte: **18.770**

HERRI MUSIKAREN TXOKOA

Tornola kalea, 6 - 20 180 OIARTZUN

Tel / Fax 943 493 578

herrimusika@herrimusika.org // www.herrimusika.org

